



Atsobarreko parkean ur jolasetan aritu ziren ostiralean. Tenperatura altuei aurre egiteko modu ederra.



Ohiko kirolez gain beste kirol batzuk ere praktikatzen dituzte Udako txokoetan etxeko txikienek.

Dibertsioa ziurtatua

Pasa den astelehenean txokoei hasiera eman zitzaion, eta ekintza ugari egin dituzte lehenengo astean.

Ostegunean, eta San Fermin egunarekin bat etorritik, entziero berezia egin zuten etxeko txikienek. Lehenengo San Fermini abestu zioten egunkaria eskutan zutelarik eta ostean, korrika egiteko momentua iritsi zen. Txupinarekin batera Okendo plazan agertu ziren zezenak.

Ur jolasekin blai

Baina hau ez zen izan aste

horretan burututako ekintza berezi bakarra. Ostiralean, eta eguraldia lagun Atsobarreko parkera joan ziren txokotako haurrak. Bertan urarekin jolasean ibili eta blai eginda bukatu zuten askok.

Rokodromoa probatzen

Kirola egiteko parada ere bada txokoetan, eta ohiko kiroletaz gain berriak probatzeko aukera ere bai gainera. Aurtun, rokodromo berria eraiki denez, eskalada egiteko aukera ederra izan zuten gaztetxoek. Kontent ikusi genituen gora eta behera. •



Okendo plazan egin zen entzierroa hasi baino lehen, Udako Txokoetako haurrek San Fermini abestu zioten.

KIROLA /2

Maialen Chourrautek hamargarren aldiz irabazi du Espainiako txapelketa



Tirabirak izan dira Gotzon Huegunen *Geroaren Memoria* eskultura inauguratu eta gero /4



Ibon Fernandez presoak zazpi hilabete daramatza minez Valdemoroko espetxean /5

ALBA
ARROPA DENDA

KOOKAI
NAFNAP
YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Maialen Chourraut Espainiako txapeldun

Munduko Kopako L'Argentiere-ko proban zilarrezko domina eskuratu zuen herriko palistak

Maialen Chourraut palistak, berriro ere Espainiako Slalom txapelketa eskuratu du eta honela, senior mailako hamargarren Estatuko titulua ekarri du Lasarte-Oriara.

Honetaz gain, L'Argentiere-n, Frantzia, antolatu zen Munduko kopako bigarren proban ere domina lortu zuen Chourrautek. Munduko palista onenei aurre eginez, zilarrezko postua lortu zuen bertan.

Nagusitasunez

Ekainaren 25ean eta 26an jokatu zen Espainiako Slalom txapelketa Maialenek ongi ezagutzen duen La Seu d'Urgell-eko kanalean.

Lasarte-Oriako gazteak ez zuen huts egin eta nagusitasun handiz irabazi zuen K-1 mailako proba.

Atletiko San Sebastian taldeko herritarrek ez zuen arazorik izan.

Erabakiorrak ziren jaitsieretan denbora onena egin zuen. Finalen, 1:35:48 markarekin, bigarrenari Katalu-

niako Marta Martinezi bi segundu eta erdiko errenta atera zion.

Zilarrezkoa Frantzia

Era berean, uztailearen 1tik 3ra Frantziako L'Argentiere-la-Bessée herrixkako kanalean egin zen Slalom Olinpikoko Munduko Kopako bigarren proba.

Honetan Maialenek lan ona egin zuen uztailearen 3ko jardunaldian.

Herriko palistak sailkapenean jaitsiera ona egin zuen eta denbora onenarekin, 118,92, lortu zuen finalerako txartela.

Finalen, lehia handia egon zen. Maialenek egindako 119,59-ko markak ez zuen urrezko domina irabazteko balio izan. Jana Dukatova eslovakiarrak hartu zion aurre, 118,32 denborarekin.

Gainera, hirugarren sailkatuak, Kudejova txekiarrak finaleko jaitsieran 117,73 marka egin zuen. Baina palistak 18. atean akatsa egin eta epaileek 2 segundutako zigorra jarri zioten.



Maialen Chourraut gogor ari da lanean, 2012. urteko Londreseko joko olinpikoak ditu helburu.

Arg.: www.rfep.es

Gauzak honela, 119,73ko markarekin amaitu zuen txekiarrak hirugarren postua bereganatuz.

Mundiala prestatzen

Bi proba hauek Maialenen egoera ikusteko balio izan

dute. Estatuko talde preolimpi-koan dago Lasarte-Oriako gaztea eta gogor egiten du lan, bere helburua lortzeko, 2012. urtean Londresen egingo diren joko olinpikoetan lehiatzeko.

Izan ere, Chourrautek irai-

lean Bratislavan antolatuko den Munduko txapelketan lortu beharko du bere bigarren joko olinpikoetarako txartela.

Horretarako, oraindik proba batzuk izango ditu bere teknika fintzeko. •

Matxain eta Iglesias arrantzan irabazle

Buruntz-Azpi elkarteak bere 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatzen ari da. Maiatzean arrantzako bi lehiaketa egin zituen Leizaran ibaian, bata zizare-arrantza eta bestea arrantzaldi arinekoa.

Zizare-arrantzan Jose Antonio Matxain izan zen garailea eta bigarren postua, Antonio Dominguezek eskuratu zuen; arrantzaldi arineko txapelduna, berriz, David Iglesias izan zen eta zilarrezko postua Jose Antonio Martxainek lortu zuen. •



Arrantza txapelketetako sarituak elkarteko arduradunekin.

Arg.: Buruntz-Azpi.




Arg.: Arroyo familia

Elisabet Arroyo Espainiako txapeldun.

Ekainaren 25ean Donostiako Etxadi eta Mons kiroldegietan Espainiako Pertsona Gorren arteko III Padel Txapelketa jokatu zen. Honetan, Gipuzkoako Gorren kirol elkartean dauden Lasarteko Elisabet Arroyo Usabiaga, argazkian eskubikoa, eta Zarautzko Miriam Argote jokalaria izan ziren garaile. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Itsaso Tolosa, Iñigo Ibarburu eta Mikel Arribillaga igerilariak Euskadiko txapelkunak dira

■ Buruntzaldea IKTko igerilariak 10 domina eskuratu zituzten Euskadiko txapelketan ■ Gipuzkoako txapelketan ere emaitza onak lortu zituzten: hiru txapelkun, hiru txapelkun orde eta brontze bat

Udako denboraldiko lehiaketa nagusietan parte hartu dute aste hauetan Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak.

Guztira 17 domina lortu dituzte, bi txapelketetan eta gaztetxo gehienek haien marka pertsonalak hobetu dituzte. Borja Apeztegia entrenatzailearen hitzetan, "emaitza bikainak lortu dituzte igerilariak".

Euskadiko txapelketa

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak uztailaren 2 eta 3an Irun eta Gasteizera joan behar izan ziren Euskadiko txapelketan parte hartzeko.

Infantil mailako gaztetxoek lortu zituzten emaitzarik onenak. Itsaso Tolosak, Iñigo Ibarburuk eta Mikel Arribillagak Euskadiko titulua eskuratu zuten. Absolutu mailakoek ere dominak lortu zituzten.

Itsaso Tolosak 200 m. bizkar proban lortu zuen urrea. Baina honetaz gain, beste bi domina ere eraman zituen etxera: zilarra 100 m. bizkar proban eta brontzea 100 m. tximeletan.

Iñigo Ibarburuk 100 m. tximeletako txapelkun izateaz gain, zilarrezko domina lortu zuen 50 m. libre eta 100 m. libre probetan.



Buruntzaldea IKT-ko gazteak udako denboraldiko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan ederki ibili dira. Arg.: Buruntzaldea IKT.

Mikel Arribillaga 50 m. bizkar proban gailendu eta hirugarren postuan bukatu zuen 100 m. bizkar proba.

Absolutuen mailari dagokionez, Naroa Goikoetxeak eta Haitz Mitxelenak podiumeko hirugarren postua eskuratu zuten proba desberdinetan: Goikoetxeak 50 m. bular proban eta Mitxelenak 200 m. tximeleta proban.

"Haitzen kasuan, froga hau igerileku luzean egiten zuten

lehen aldia zen eta esperientzia falta nabaritu bazaio ere, bikain egin du," azaldu du Apeztegia entrenatzaileak.

Honetaz gain, 4x200 m. libre, 4x100 m. libre eta 4x100 m. estiloko mutilen taldeek haien markak hobetu zituzten.

Gipuzkoako Txapelketa

Bestalde, aurreko astean, ekainaren 25 eta 26an, Gipuzkoako Infantil, Junior, Promesa eta

Absolutuen Gipuzkoako Txapelketa ospatu zen Bergaran.

Honetan Itsaso Tolosak eta Iñigo Ibarburuk Gipuzkoako titulu berriak eskuratu zituzten.

Ibarburuk tximeleta proban bere trebezia erakutsi zuen. Bi probetan, 200 tximeletan eta 50 tximeletan, egon zen podiumeko lehenengo postuan eta 100 tximeletan, berriz, txapelkun orde izan zen.

Itsaso Tolosari dagokionez, 200 m. bizkar proban lortu zuen urrezko domina. Gainera, 100 m. tximeletan eta 100 m. bizkar probetan txapelkun orde izan zen.

Baina ez ziren igerilari hauek domina eskuratu zuten bakarrak, Garazi Alkorta hirugarren izan zen 50 m. tximeletan.

Azpitarragarria da, gainera, maila desberdinetako gaztetxoek hogeita bat marka pertsonal hobetu zituztela. Erreleboetan taldeko denbora hobetzeaz gain, Haitz Mitxelenak 100 metroetako bere marka hautsi zuen eta Iñigo Ibarburuk 50 metroetakoa.

Izena ematea

Era berean, Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak gogorazazi nahi du, igeriketa egin nahi duten haurrek uztaila bitartean aurreinskripzioa egin dezaketela.

Honetarako, Lasarte-Oriako igerilekuan Borjagatik galdetu, astelehenean ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara edo 696 506 632 telefonora deitu behar dute interesatuek.

Era berean, taldeko arduradunek azpitarratu dute, 2005 urteko haurra onartu izateko taldean anai edo arreba bat izan behar duela. •

Tenis Txapelketa azken txanpan sartu da

Lasarte-Oriako Tenis Txapelketa jokatzen ari da Michelingo Kirol gunean.

Uztailaren 1ean hasi zen lehiaketa honetan, 32 jokalaririk izan dira lehengo fasean jokatzen dutenak, herritarrek, zein inguruko jokalariek.

Egunero lau partida ikusteko aukera egon da teniseko pistetan. Lehenengo faseko norgehiagokak, zein bigarren faseko partidak izan ziren lehengo astean.

Finalerako bidea

Aste honetan zehar, finalerako bidea hartuko du txapelketak. Gaur final laurdenak hasi eta ostiralean amaituko da txapelketa, final handiarekin.

Hala ere, gaur bigarren faseko Alberto Gil eta Ivan Jimenezen arteko norgehiago-



Ostiralean jokatuko da Lasarte-Oriako tenis txapelketako finala Kirol gunean.

ka jokatuko litzateke ere. Buruz buruko hau asteazkenean hasi zen baina lehenengo setean partida jokatzeari utzi behar izan zioten.

Gauzak honela, txapelketako antolatzaileek teniseko eremura hurbildu eta kirol honetaz gozatzeko gonbita egiten diete herritarrei. •

KIROLDEGIA

Pisten erabilpenean ordu libreak

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketetarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileei ondoko hau gogora arazi nahi die, entrenamenduen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu libreak aurkitzeko aukerak askoz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Informazio gehiagorako Udalaren kirol zerbitzura hurbildu edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu ahal du. •

BELTZAK ERRUGBI TALDEA

Zozketen emaitzak

Aurtengo San Pedro jaietan Beltzak Errugbi taldeak antolatutako zozketen emaitzak hauek dira: ekainaren 28an, mariskoa eta haragiak, 3665 zenbakia; ekainaren 29an, Txitarro sagardotegian lau laguntzako afaria, 7165; ekainaren 30ean, Arzak jatetxean bi laguntzako afaria, 4016 zenbakia eta uztailaren 1ean, Costa Vasca hotelean afaria eta Spa zirkuitua, 5760 zenbakia.

Harremanetan jartzeko telefona txarteletan dago, bestela bidali mezu bat beltzakrugby@gmail.com helbidera.

Gogoratu errugbi eskolan izena emateko epea irekita dagoela, horretarako Ostadarretik pasa zaitzekete edo aurreko helbide elektronikora mezu bat bidali. •

"Geroaren Memoria" lana, parke berrian

■ Gotzon Huegun-en eskultura San Pedro Egunean inauguratu zuten udal ordezkariak Askatasunaren parkean

■ Adiskidetzaren aldeko apustua eta biktimei errespetua nabarmendu zituen Pablo Barrio alkateak hitzaldian

■ Jesus Zaballos alkate ohiak kexa adierazi zuen Lasarte-Oriako biktimen senideak ez zituztelako gonbidatu

"Ots! Ots! Bizion oinok Ots! Ots!..Lizardiren poemarekin hasi zuen Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak Udaletxe atzean sortu den Askatasunaren parkearen eta bertan indarkeriaren biktimak omentzeko asmoz jarri den "Geroaren Memoria" eskulturaren inaugurazioko hitzaldia. Bizitzaren aldeko aldarrikapena egin zuen Barriok, indarkeriaren ondorioak aitortu, sufritu dutenei babesa eman eta aurrera egiteko proposamena luzatuz.

Jon ALTUNA

Bizion oinok, gure pausak, alegia, Bizion pausak. Askatasunaren Parke honetara etortzeko eman ditugunak. Gogo garbiz eta borondate sendoz emandako pausak. "Geroaren Memoria" eskulturaren marmolezko hiru argizaiola hauek sortzen duten espazio honetara ekarri gaituztenak" esan zuen Pablo Barriok hasteko inaugurazioan. Argizaiola eta argiak eskualturan izan duen garrantzia nabarmendu zuen Lasarte-Oriako alkate berriak, hildakoei egindako eskaintzen artean garrantzitsuenak "heriotzaren bestaldeko mundu ilunean mugiltzeko". Argizaiolak irudikatzen du bere ustez, heriotzak sortzen duen hutsune eta minaren aurrean gure artean sekula egongo ez direniko bizidunen azken maitasun eta errespetu keinua.

Ondoren, "Geroaren Memoria" eskulturari emandako esanahi, zentzu edo ideia azaldu zuen: "urteetan gure herrian pilatu den min eta atsekabe handia aitortu behar da, sufrimendu horri zor zaion errespetu zintzo eta zorrotzarekin, eta gure asmoa da omenaldi hau indarkeria ezberdinekin eragindako biktimei guztien aitortza, ordaintza eta adiskidetzarako bidean pausu bat izan dadila".

Eta bere ustez hori irudikatzen du Markinako marmol

beltzez egindako eskulturak: "hiru zutabe, hiru menhir, hiru argizaiola, eta bakoitzean horgoieiz egindako kolorezko laukiak", biktimen artean sentibiltate ezberdinetako pertsonak daudela adierazteko, ez dela kolektibo homogeneoa, alegia eta kolore biziak erabiliz bizitzaren aldeko apustu sendo eta ausarta irudikatzen: "Historia hau daukagu eta ez dugu ahaztu behar, baina etorkizunera begiratu eta lanean segi behar dugu, oraindik egun gure errealitatearen parte dena bihar gure memoriaren parte izan dadin" adierazi zuen Barriok.

Ardura eta erronka horiek luzatu zituen Pablo Barrio alkateak "elkarren arteko errespetua, bizikidetzaren aldeko apustua, partekatutako konpromisoa, pasa denaren ardura denok nor bere gain hartzea,... azken finean, egia, egiak egingo baikaitu libre. Horixe da bidea. Goazen. Ots! Ots! Bizion oinok..."

Barrio alkatearen hitzaldia txalapartariak, dantzarien agurrak eta Zero Sette akordeoi orkestraren doinuek osatu zuten. Udal ordezkari gehienak eta hainbat herritar ere izan ziren inaugurazioan, eta Gotzon Huegun eskulturaren egileak Pablo Barrio alkate eta Jesus Zaballos alkate ohiak elkartu zituen. Honek eskatuzion herriko artistari indarkeriaren biktimak omentzeko



Inaugurazioan Gotzon Huegun eskultorea Barrio alkatearekin eta Zaballos alkate ohiarekin egon zen prentsaren aurrean.



Zaballos herriko PSE-EEren bozeramaileak hurrengo egunean egin zuen salaketa.

eskultura egiteko eta inaugurazioan, alkateak herriko biktimei senideak ez zituela gonbidatu kritikatu zuen.

Alkate ohiaren kritika

Zaballosen ustez, lan hau ETAK Lasarte-Oriako eragindako zortzi biktimen senideekin herriak zuen konpromiso edota zorren eta horregatik inaugurazioan eta hurrengo egunean prentsaren aurrean bere atsekabea adierazi zuen eta alkatearen jokabidea kritikatu, "ETAK hildakoko gogoratzen dituen eskultura hauen senderik gabe inauguratu duelako".

Prensaurrekoan alkate ohiak adierazi zuen "triste" dela Pablo Barrio alkate berriak biktimei aitortzen atzerapausoak ematea, "are gehiago, Euskadin bakea lortzeko eta ETari amaiera eskatzeko jarrera eta iritzia ematea hain garrantzitsua den une hauetan".

Era berean inaugurazio ekitaldian eskulturak zuen sinbolismoa ezkatuta dela kritikatu zuen Zaballosek. Bere iritziz, Lehendakariak, Jaurilaritzako eta Ministerioi Biktimen Zuzendaritzak eta biktimei senideek bazekiten eskultura martxan zegoela eta zeukan sinbologia, eta "inaugurazio

ekitaldiko gonbidapena espero zuten, baina Bildu, EAJ eta Plataformak osatu duen Udako Gobernu berriak ez ditu gonbidatu, lanak hasieran zuten omen zentzua alde batetara utziaz". "Jakin nahi nuke zein iritzia duten EAJ eta Plataformak, orain, eskulturak ETaren indarkeriaren biktimak omentzen ez baditu? Zergatik alboratu da hasieran zuten esanahia? Zergatik inauguratu da, eraillako pertsonen senidei gonbidatu gabe?" galderak luzatu zituen Zaballosek.

Prensaurrekoan adierazi zuen bere lehentasunetako bat izan dela indarkeriaren biktimei zuzenean aitortzea, eta horregatik, beraien omenez, Memoriaren Eguna ospatu dela, Udaletxe sarreran plaka bat jarri dela, parke berriari Askatasunaren Parkea izena jarri zaiola, edota "Ausencias" izenburua duen liburua argitaratu dela. "Ekintza horiekin guztiekin Lasarte-Oriako eta aurreko udal ordezkariak modu ezabaezinean adierazi nahi zuten sufritu duen terrorismo ankeraren aurkako jarrera; biktimei aitortza horretatik sortu zen Askatasunaren Parkean beraien omenezko eskultura jartzeko ideia". •

Zaballos izango da PSE-EEren bozeramailea

PSE-EEko zazpi zinegotzietatik osatuko duten udal-taldearen bozeramailea Jesus Zaballos izango dela eta ordezkaria Iñaki Mugica jakinarazi du alkate ohiak berak prentsaren aurrean. Zaballosek adierazi du lasarteoriatarrekiko konpromisoari eusten diotela, nahiz eta orain oposizioan egon.

Zaballosen ustez, 25 urtean herriak izan duen garapena da egin duten lan eraginkor eta arduratsuen abibide, eta aldiz, Bildu, EAJ eta Plataformak sortutako Gobernu ibilbide motza du eta ez dago prest gobernatzeko. "Horregatik adi jarraituko dugu eta udaleko gaietan eguneroko lan egingo dugu" alkate-tzara itzultzen direnerako, "hemendik lau urtera, taldeen adostasun ezagatik ez baldin bada lehenago gertatzen".

PSE-EEK adierazi du, eurek, aldiz, arlo bakoitzeko esperientzia duten pertsonak dituela prest: Zaballos, Ogasuna, Etxebizitza eta Barne Erregimenean; Iñaki Mugica Hirigintza eta obratan; Nerea Artamendik Hezikuntza, Kultura eta Euskara; Txus Alonso Kirola, Gazteria eta Festatan; Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuak, Lana eta Kooperazioan; Martin Moreno Zerbitzu Publikoan eta Marisa Zubiri Ingurumena, Osasuna, Kontsumoa eta Merkataritzan.

Bestalde irailetik aurrera atekak zabalik izango dituzte PSE-EEko Herriko Etxean, astelehenean ostegunera, 18:00etatik 20:00etara. Gainera bulego kanpoan postontzia jarriko dute eta www.socialistaslasarteoria.com orrialdean ere "Zure iritzia eman" atala egongo da horretarako. •

Zazpi hilabeteko sufrimendua

■ Ibon Fernandez Iradi presoa egoera larrian da Valdemoroko espetxean ■ Minekin hasi zenetik zazpi hilabetetara ez du medikuen erantzun egokirik jaso ■ Senide eta lagunak oso kezkatuta dira bere egoera uneoro okerrera doa eta ■ Zailtasun handiak ditu oinez ibiltzeko

Ibon Fernandez Iradi Lasarte-Oriako presoa egoera larrian da azken zazpi hilabeteotan Valdemoroko espetxean: mina du sabel, hanka eta besoetan, hauek txingurritu egiten zaizkio eta ibiltzeko arazoak ditu. Hala ere, bere senide eta lagunak salatu dutenez, espetxeko mediku eta funtzionarioek ez diote kasurik egin, ez du erantzun egokirik jaso eta oraindik ez du diagnostikorik ere. Beraz, berandu baino lehen mediku frogak egiteko eskatu dute senideek. 2010eko urtearen amaieran hasi zen urdaileko min eta beherakoekin eta zazpi hilabeteotan okerrera egin du, gorputzeko parte ezberdinetara zabaldu zaio mina eta ezin du luzaro eserita ere egon.

Jon ALTUNA

Azken zazpi hilabeteotan Ibon Fernandez Iradi Lasarte-Oriako preso politikoaren osasun egoera asko txartu dela eta, oso kezkatuak ageri dira bere senide eta lagunak. Horregatik, "berandu baino lehen" beharrezko mediku frogak egiteko eskatu dute: "Beldur gara, Ibonen eboluzioa ikusirik itzuli ezinak diren ondorioak izango dituela".

Ibon Fernandez Iradi 39 urteko lasarteoriatarra Valdemoroko espetxean dago, minez eta medikuen laguntzarik gabe azken zazpi hilabeteotan. Senide eta lagunak salatu dutenez, bere osasun egoera larria da, 2010 urtearen amaieran sumatu zituen eritasunaren lehen sintomak, eta ordutik, zazpi hilabeteotan nabarmen okerrera egin du.

Hasierako urdaileko mina, gorputzaren parte ezberdinetara zabaldu zaio, min du hainbat tokitan, sabel ingurua gogortua dauka, hanka eta besoetan sentikortasun falta, txingurritzeak eta oinazeak, hatzak ez ditu sarri sentitzen, ... ondorioz, zailtasun handiak ditu ibiltzeko eta

ezin du eserita bost minutu baino gehiago egon. Duela aste batzuek ziegan pasa behar izaten zituen 24 orduak ezin zuelako patiora jaitsi eta janaria ere, beste preso batek eramaten zion ziegara.

Zazpi hilabete minez

Lehen sabeleko min eta beherakoak hasi zirenetik pasa diren zazpi hilabeteotan bere osasun egoerak nabarmen okerrera egin duen arren eta senideek espetxeko langile, mediku eta zuzendaritzari bere urduritasuna eta egonezina adierazi dioten arren, kartzelako medikuek ez dute oraindik diagnostikorik egin. Dena den, diagnostiko zehatzik ez duen arren, hainbat medikamentu hartzen ari da Ibon Fernandez beti ere sintomatologian oinarrituta.

Horrela azken hilabeteotan Iradiren egoera gero eta larriagoa da, baina espetxeak berdin segitu du, ez du beharrezko neurririk hartu gaixoa behar bezala aztertzeko, eta ez die kasurik egin Ibon presoaren, honen senideen, abokatuen eta konfiantzazko medikuen kexen eta eskaeren aurrean. Konfiantzazko medikuen ustez urgentea da Ibon



Martxoan eman zuten konfiantzazko medikuek larritasunaren berri, frogak egitea urjentea deritzote baina ez diote baimenik eman.

ospitalera eramatea beharrezko frogak egin diezaizoten.

Arazo larriak

Senide eta lagunak pertsona orori dagokion oinarritzko osasun arreta exijitzen dute, presoek itzultzerik eta konponbiderik ez duen ondorioz jasan ez dezan.

Zazpi hilabete daramatza oinarritzko osasun arreta egokirik izan gabe eta hilabetez hilabete asko okertu da presoaren egoera, gainera. Sabeleko lehen sintoma haietatik arazoak gehitzen joan dira: ibiltzeko arazoak ditu, -bi hankak txingurritzen zaizkio-, sabela gogortuta, arnasa hartzeko zailtasuna, hitz egiteko

arazoak, digestio eta libratzeko eragozpenak, besoetan indarra eta mugikortasuna galdu du, eserita ezin du luzaro egon, dardarak ditu gorputzean...

Konfiantzazko medikuek jada martxoan adierazi zitoten senideei egoeraren larritasuna eta diagnostiko zehatza egiteko urgentziazko frogak egin behar direla uste dute, baina alperrik.

Anbulantzia kanpora

Apirila amaieran bere egoera larria zela eta, ambulanzian atera zuten urgentzietara, baina han plaka bat egin eta oinazearen aurkako injekzioa ematera mugatu ziren.

Familia eta Quiron eritexu pribatuko medikuak prest ziren maiatzaren 6an Ibon Fernandez Iradiri frogak egiteko, baina ukatu egin zitoten presoari Quiron Ospitale pribatuan frogak egiteko hitzordurako baimena, Instituciones Penitenciarias-ek jakinarazi zionez, segurtasun neurriak argudiatuz.

Maiatzaren 20an preso traumaatologoarengana atera bazuten ere, ez diote erresonantziarik egin eta daukanaren diagnostiko jakinik gabe jarraitzen du. Beraz, pilulak hartzen eta medikatzen ari da preso, baina hauen eraginaren eta egokitasunaren ziurtasunik gabe. •

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomoa ontzutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Txistorra

Baserri pateaa



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

ERASOA

Xirimiri elkarteak eraso jasan zuen

Xirimiri elkarteak, uztailearen 3ko goizaldean elkartearen jasotako gertaera salatu nahi izan du.

Elkartetik arduradunek adierazi dutenez, ezezagun batzuk hondakinez betetako zabor poltsa haundi bat hustu eta elkartearen atarian sua eman zioten elkarteko kide bat barruan zelarik.

Horregatik, Xirimiri elkarteak gogor salatu nahi du elkartearen aurka gaur egun Euskal Herriak bizi duen egoeran onartezin den ekintza tamalgarri hau.

Era berean, lasarteoriatarrei adierazi nahi diete, "horrelako ekintzek ez dutela Xirimiriren lana oztopatuko eta herritarrekin herriaren alde lanean jarraituko dugula". •



Argazkian ikus daitekeen bezala, elkarteko sarreran kalteak eragin zituen.

ORIA AUZO

Karmengo Amaren eguna ospatuko dute larunbatean Oriatarrek

Datorren larunbatean, uztailearen 16an, Karmengo Amaren eguna da eta Oriatarrek eguna ospatzeko prestatzen ari dira dagoeneko.

Urtero legez, hainbat ekitaldi prestatu dituzte eta herriko lagunei, zein auzoko bizilagunei gonbita egiten diete ospakizunetan parte hartu dezaten.

Goizeko 10:00etan trikitalariak alaituko dituzte kaleak, Solano musika eskolako trikitixa ikasleak arduratuko dira.

Eguerdiko 12:00etan auzoko Karmengo Amaren kaperan meza egingo da eta Juan Luis Muruak zuzenduko du meza, Xabier Andonegi eta Ramon Uribeetxeberriaren laguntzaz.

Pilar Catalina sopranoak parte hartuko du hainbat doinu abstuz eta Amaia Dorronsorok organoa jotzen lagunduko dio.

Mezaren ondoren Plazido Mugika plazara hurbiltzen diren guztiei lunch bat eskainiko zaie. •

SANTA ANA

Parodiarako aktoreak behar dira

Santa Ana parodiako antolaketa batzordea uztailearen 26ko emandria prestatzen hasi da dagoeneko.

Horregatik, honetan parte-hartu nahi duen orok; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan edo/eta jantziekin lagundu nahi duenak, Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4) hurbildu, 943 371 448 telefonora deitu edo mezu bat bidali dezake kultura@ttakun.com helbidera.

Entseguak Manuel Lekuona kultur etxean izango dira uztailearen 18tik 22ra, 19:00etatik 21:00etara. •



laz parodia musikala Isla plazan egin bazen ere, aurten Okendo plazara bueltatuko da.



Rafa Diez Usabiaga 2010. urtean aske utzi zutenean, ongi etorri beroa egin zioten herrian.

Arg.: J. Agirretxe.

Rafa Diez epaiaren zain

Fiskalak hamar urteko espetxe zigorra eskatu du Rafa Diez herritarrarentzat eta Arnaldo Otegiarentzat, ustez ETaren aginduak jarraitzeagatik

Rafa Diez Usabiaga lasarteoriatarra eta Bateragune auziko epaiketako beste bederatziz auzipetuak Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiaren zain daude.

Ekainaren 27an hasi zen epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan eta uztailearen 7an, ostegunean, amaitu zen.

Epaimahaiburua Angela Murillo izan da eta Juan Francisco Martelek eta Teresa Palaciosok osatu dute epaimahaia.

Fiskal lanetan Vicente Gonzalez-Mota egon da eta Terrorismoaren Kontrako Aho-tsak herri akusazio bezala ere auzketu da.

Akusazioa

Fiskalak atxilotuak ETAk aginduta Bateragune deituriko taldea sortu zutela eta honen irizpideak jarraitze lan egiten zutela argudiatu du eta horretarako peritu eta poliziaren deklarazioetan oinarritu da.

Hala baina, defentsa eta akusatuek hau gezurtatzen saiatu dira.

Horretarako, hartutako ildo demokratikoa eta edozein biolentziaren aurkakoa dela azpimarratu nahi izan dute, hainbat lekukori esker, hala nola, EAko ordezkariak, kazetariak, sindikalistak...

Deklarazioak

Akusatuak hitzak ere entzun dira epaiketan. Lehenengo egunean, arratsaldeko saioan, Rafa Diez herritarrak deklaratu zuen.

Diezek aipatu zuenez, atxilotutakoan ezker abertzale

leak haien ustez jarraitu behar zuten fase politiko berriaren argipena eta estrategia zuten txostena amaitzen eta Altsasuko Adierazpena-ren edukia prestatzen ari ziren.

Agiri hori ezker abertzalearen baitan inoiz egin ez den debatearen oinarria izango zen. "Ezinbestekoa zen sakoneko eztabaida egitea eta ezker abertzalearen estrategia auzitan jarri, tutelajerik gabe, autonomiaz, eta egun iritsi den tokira iristea, behin betiko bakea eta irtenbide demokratikoak lortzeko asmoz", azaldu zuen Rafa Diezek.

Eta epaiketako azken saioan, akusatuek haien azken hitzak esateko aukera zuten arren, eskubide hori erabili zuten bakarra Arnaldo Otegi izan zen.

Azpiarragarria da, bere mintzaldian, ezker abertzalearen estrategian indarkeria soberan dagoela eta traba egiten duela adierazi zuela.

Era berean, eskaera bat egin zuten ezker abertzaleko kideei «inork ez dezala utzi hasi dugun bidea». "Edozer gauza gertatzen dela ere, edozein direla datozen hilabetetan gertatzen direnak, inork ez dezala bide hori utzi".

Zigor eskaerak eta epaia

Gauzak honela, fiskalak honako zigor eskaera egin du Rafa Diez herritarrarentzat eta Arnaldo Otegiarentzat: hamar urteko espetxe zigorra mantendu zuen Bateragunen "funtzio erabakigarria" zutelakoan.

Gainontzekoei zigorra jai-

tsi egin zuten edo ez du zigor eskaerarik egin.

Sonia Jacintorentzat eta Arkaitz Rodriguezentzat zortzi urteko espetxe zigorra eskatu zuen eta Miren Zabalearentzat bederatzikoa.

Azkenik, Txelvi Moreno, Amaia Esnal eta Mañel Serrarentzat ez zuten eskaerarik egin.

Orain, epaiaren zain gertatzen dira auziperatuak.

Aurrekariak

LAB-eko idazkari nagusi ohia, 2009ko urriaren 13an atxilotua izan zen LABen Donostiako egoitza nagusian Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aginduz. Beste bederatziz kiderekin batera, Batasunaren Mahai Nazional berriaren berrantolaketa prestatzen ari zirela leporatu zien.

Defentsak 2010eko martxoaren 8an Rafa aske uzteko eskaera egin zuen, ama zaindu zezan. Urte horretako apirila amaieran, Baltasar Garzon epaileak aske utzi zuen 30.000 euroko bermea jarri ondoren eta politikan aritzeko baldintzak ere ezarri zizkion.

Aurten, maiatzaren 5ean, Espainiako Auzitegi Nazionalako laugarren atal herritarra deitu zuen bere egoera aztertzeke. Orduan, Vicente Gonzalez-Mota fiskalak Diez epaiketara arte aske uzteko eskatu zuen eta horrela izan da.

Azkenik, maiatzaren 30ean, Auzitegi Nazionalak ekainaren 27an Bateragune auziari hasiera emateko erabakia jakinarazi zuen. •

Ostirala, 15

Kontzertua

ESTANKONA taldearen emanaldia. Talde honek Pop eta Rock musikak lantzen ditu euskaraz. Estankonarekin batera, Jimmy Arrabit eta Itxaso Etxebeste arituko dira. Jalgi kafe-antzikokian, gaueko 12etatik aurrera, EUSKARAZ.



Egunero

Erakusketa

Begoña Muniategiren "MUNDUKO EMAKUMEAK" margo erakusketa abuztuan. Olio eta akriliko materialaz egindako margoak. Jalgi kafe-antzikokian.



Umore zinten eta komikien erakusketa Jalgin

JOSEVISKY, Joseba Larratxe artistaren komikien erakusketa, "Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria". Marrazkilari honen lanak komunikabide eta erakusleiho askotan ikusi daitezke, esate baterako Nabarra aldizkarirako astero egiten du umore zinta bat.

UZTAILA OSOAN ZEHAR
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
EUSKARAZ

Zubietako Santioak

Uztailak 23

Santioak Zubietan

19:00 Jaien hasiera, buruhandi, kantu-jira, txosnen irekiera...; 21:00 Herri afaria; 00:00 EGAN taldearekin erromeria eta ondoren, ITZARTU taldea.

Uztailak 24

Jubilatuen Eguna

10:30 Meza; 12:00 Herri Kirolak; 14:00 Jubilatuen bazkaria; 18:00 Dantzaldi musikala eta ondoren, Uxue eta Lierni trikitilariak, sardina jana, piperrak eta sagardo dastatzeko aukera; 23:00 BLAKAREN kontzertua eta ondoren, LAIOTZ taldea.

Uztailak 25

Santio Eguna

09:00 Esnadeia Donostiako txistulari bandarekin; 10:30 Meza; 11:30 hamaiketakoa eta Soka-dantza; 18:00 XIV. Trikitixa txapelketa. Ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak eta buruhandiak; 22:30 Bertso-saioa: B. Gaztelumendi, J. Labayen, A. Oizartabal "Xamoa" eta I. Manzisidor "Mantxi". Gaijartzen I. Iriarte eta ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak.

Eskutitza

Buruntz-Azpi elkarteari erantzuna

Polemika sortzeko asmorik gabe eta dugun eskubidea kontuan izanik, Txintxarri eta DVN argitaratu den idatziari erantzunez eta iritzi publikoari ezagutzera emateko asmoz, Lasarte-Oriako Danborradako Batzordeak martxoaren 24an Buruntz-Azpi elkartera bidalitako idatzian esandakoari eusten diogula jakinarazten dugu. Honetan, elkarteak egindako gonbidapena eskertuaz, danborrada elkarte horretatik ateratzeari ezetza eman genion. Herriko elkarte eta erakundeekin aurrerari bat ez sortzea da asmoa eta elkarteen urteurrenaren bakarrik jotzeko ekimenari jarraitzea emateko, esate baterako, Intza, Lasartearra edo Saustatxo elkarteekin egin zen bezala.

Zentzu honetan azpimarratu nahi dugu, Batzorde honek danborrada irailean elkarte dagoen auzoan bakarrik ateratzeko eskaintza egin zien, baina arduradunek ezetza eman zuten.

Eragin ez dugun egoera honek atsekabetzen gaitu. Esan ez diren adierazpenen salaketa estaliak samintzen gaitu, egoera nahasten saiatzen direlako eta ez dutelako, aldi oro, egoerak eskatzen duen mailan jokatu duen danborradaren izaera adierazten. Era berean, danborradako kide izan diren, diren eta ziurrenik izango diren bazkideak, 50 urteko historia eta gure herrian errota dagoen Buruntz-Azpi elkartearen ibilbidea bikainaren izaera ere ez dute adierazten.

Azkenik, gaiari amaiera emateko asmorekin, gure proposamena errepikatzea, elkartearen 50. urteurren ospatzeko data egokia jartzera, besterik ez dugu.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Lasarte-Oriako Danborradako Batzordea

Liburutegiko udako ordutegia

Astelehenetik ostiralera 08:00 - 14:00 eta astelehen arratsaldetan 16:00 - 20:00
Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Danborradaren eskertza

Lasarte-Oriako Danborradaren Antolakuntzak ohar honen bidez, eskerrak eman nahi dizkie Ainhoa, Abend, Buenetxea, Jockey, Insausti, Riojanos, Lasarte eta Yolanda tabernei, pasa diren San Pedro jaietan eginko ekarpen eskuzabalagatik.

Kiroldegiko udako ordutegia

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 egongo da zabalik eta kiroldegia bera 07:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna 09:00-12:00 eta 17:00-21:00. Larunbatetan eta jai egunetan igerilekua 09:00-13:00; sauna itxita; igandeetan dena itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea

astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00. Larunbatetan 09:00-13:00 eta igandeetan itxita.

Mariskadak ez du jaberik

Lasarte-Oriako ostalarien elkarteak jakin arazten du, uztailaren 2ko zozketako sariak, Itsaski saskiak ez duela irabazlerik. 62.062 zenbakia duen txartel saritua Buene-txea tabarnan banatu zen. Txartel hori duen herritarra hurbildu dadila elkarteko taberna batetara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitza edo kexa argitaratzeko egin beharrekoa

TXINTXARRI aldizkariako *Eskutitzen* atalean edo *Dagokionari* atalean zure iritzia, kexa edo besterik gabe gutun bat idatzi nahi baduzu, idatziarekin batera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar diguzue guk argitaratu ahal izateko.

Hori bai, zuen izena ez baduzue argitara eman nahi, ez da aterako, beste modu batera sinatu daiteke, baina erredakzioan jakin behar dugu pertsona hori nor den.

Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien iritzi eta kexak adierazteko TXINTXARRI aukeratu dutenei.

Zabaleta auzoa pozik da hiribusarekin

■ Iritzi oso ona dute auzotarrek 2010etik martxan den zerbitzuari buruz. ■ Azterketa batean auzotarren iritzia jaso eta zenbait ondorio atera dituzte ■ Gehienbat zaharrek erabiltzen dute

Zabaleta auzo-elkarteko zuzendaritzak auzotarren artean hiribusari buruz egin duen galdeketa araberako, pozik daude auzotarrak 2010eko udazkenean jarri zen zerbitzuekin, oso ondo baloratu dute oro har, ibilbide, geltoki eta ordutegiari buruz zuzenketa batzuek proposatu arren iritzi ona dute eta gehiena kritikatu dutena zerbitzuaren prezioa da. Auzo elkarteak maiatzean jarri zuen txostena Udalaren esku eta alkate aldaketa egon denez Pablo Barriori ere azterketaren ondorio eta auzoaren iritzia helarazteko asmoa dute, auzo elkarteko lehendakari Ramon Salazar eta kide Mikel Urruzolak adierazi digutenez.

Jon ALTUNA

Martxoan etxez etxe banatu zuten hiribusari buruzko galdeketa 54 erantzun jaso ditu auzo elkarteak eta jasotako datuetan oinarrituz egindako txostenean batetik Zabaleta-koen iritzi orokorra jaso eta zenbait ondorio atera dituzte, eta bestetik parte hartu duten auzotarren proposamen konkretu eta iritzi partikularrak ere jaso dituzte.

Ondorio nagusiei dagokionez, batetik argi ikusi dute gehienbat zaharrek erabiltzen dutela zerbitzua eta eurak direla interes gehiena erakutsi dutenak, (erantzun dutenek batzuek 84 urte); bestetik nabaritu dute, oro har, oso ondo ikusten dutela auzotarrek zerbitzua, (zerotik hamarrera, batzuek 9,08 puntu eman dizkiote) eta azkenik, iritzi gehienak geltoki, ordutegi eta prezioari buruzkoak izanik, ordutegi eta geltokiei dagokionez, bakoitzak bere interesen arabera erantzun duela ikusi dute, zuzenketa proposamen asko izan direla eta gehienek merkeagoa izan beharko dela aipatu dutela. Zabaleta auzoko elkarteko zuzendaritzak ere ondorioetan aipatzen du prezio merkeagoa jarrita, jende gehiagok erabiliko lukeela zerbitzua.

Ramon Salazar, Zabaleta auzo elkarteko lehendakariak, argi dauka auzoko autobusak askoz ere etorkizun hobea izango duela: "jada Goiegiko etxeetara batzuek bizitzera etorriak dira, eta Zabaletan ere etxeak eraikitzen ari dira. Orduan, gero eta jende gehiago ibiliko da eta zirkuitua egiteko asmoa dute, alde batetik igo eta bestetik jaitsi".

Hiribus atalez atal baloratu behar zuten auzotarrek eta Auzo Elkarteak Udalean aurkeztu duen txostenaren

arabera, emandako puntuazioak altuak dira iritzi orokortetik beretik hasita: 9,08ko batzuek bestekoa. Ibilbide, geltoki eta ordutegiari buruzko batzuek puntuazioak ere 8tik gorakoak dira, 8,56, 8,26 eta 8,16koak hurrenez hurren eta prezioari jarri dioten puntuazioa, aldiz, ez da hain ona izan, batzuek 6,56koa.

Txartelarekin hobe

Prezioari buruzko proposamen asko egin dituzte inkestan, eta kexa nagusietako bat da, auzotik Lasarte-Oriara jaitea Donostiara joatea bezain garestia dela, Lurralde-buseko txartela erabilita ere.

Dena den, gauza on bat bada, Ramon Salazar-ek azaldu digunez, Lurralde-bus txartelarekin Zabaletan autobusa hartu eta gero Lasarten denbora tarte txiki batean Donostiakoa hartuz gero, behin bakarrik, txartel bakarra, ordaintzen dela. "Bi aldiz pasatu behar da txartela dagokion makinan baina behin kobratzen dute".

Ramon Salazar sarri bildu da udal ordezkariekin hiribus edo ospitaleetara autobusa eskatzeko eta jakinarazi digu, bilera batean aurreko alkateak aitortu zuela ahaleginak egingo zituela diruarekin ordainduta ere hiribusaren prezioa 80 zentimora jaisteko, baina orain alkate aldaketa izan denez ez dakite hori zertan gelditu den.

Galdeketa erantzun dutenen artean gehienak (%75) hiribus egunero edo ia egunero erabiltzen dutenak izan direnez, Mikel Urruzola auzotarren iritzi, ez dira oso zorrotzak eta kritikioak izan erantzunetan, hain juxtu eurak direlako hiribus mantentzearen alde daudenak. "Ordaindu behar bada ordaintzeko prest daude, baina behar dute hiribus".



Mikel Urruzola eta Zabaleta auzo elkarteko lehendakari Ramon Salazar eskuetan hiribusari buruzko txostena dutela.



Hiribus martxan da Lasarte-Orian 2010eko udazkenetik.

Zabaleta auzoan garrantzia izan du beti erdigunera jaisteko eta erdigunetik igotzeko autobusaren gaiak eta iaz martxan jarri zenean, auzotarrek komentario ezberdin asko egin zituztela ikusita, auzo elkarteak pentsatu zuen interresgarria litzatekeela guztiei iritzi emateko aukera eskaintzea, gero Udaletxera alkateari iritzi guzti horiek elkarrekin eramateko. Beraz auzotarren iritzi hori jasotzeko asmoarekin galdeketa egin zuten martxoan, apirilean emaitzak aztertu eta maiatzean egindako azterketa eta ondorioak udalaren esku jarri zituzten.

Ondorio orokorrez gain atalez atal egin diren proposamen guztiak jaso dituzte txostenean, elkarteari guztiek interesa dutela iruditzen zaiolako.

Geltokiei dagokionez, asko dira Kultur Etxea eta Michelin ibilbidean jartzearen aldekoak, urtean zehar haur eta gazte gehienak hor ibiltzen direla kontuan izanik, baina auzotarrek jakin badakite Pablo Mutiozabal kalean trafiko zailtasunak izaten direla. Eta bestalde aldapa erdiko parada da auzotarren aspaldiko beste eskaera bat, behin eta berriro azaltzen dena.

Ordutegiari dagokionez denetarik proposamenak egin dituzte auzotarrek, bakoitzak bere nahien arabera. Dena den, auzo elkarteko ordezkariak uste dute zuzenketa edo ajuste batzuek egin daitezkeela eta orduak egokitu eskolara doazenean edo ospitaleetara autobusa hartu behar dutenek erabiltzeko aukera izan dezaten.

2010eko udazkenetik

Autobusa herriko auzoetan barrena dabil 2010eko udazkenetik eta abian jarri zenean Udalak agindu zituen baldintzak betetzen dituzte arazorik gabe iraungo duela uste dute zabaletarrek.

Aurreko alkateak jakinarazi zien, urtean 35.000 erabiltzaile beharko litzatekeela bestela kendu egingo luketela errentagarria ez litzatekeela eta, baina lehen hilabeteetatik eraz gainditu dute kopuru hori.

Mikel Urruzola eta Ramon Salazarrek adierazi digutenez, autobusean denetarik ibiltzen da, lehen oinez ibiltzen zirenak eta orain erosketaren batzuek egin eta gero autobusa hartzen dutenak, lehen autoz bizpahiru joan etorri egin zituztenak eta orain hiribusen egin dituztenak edota lehen herri erdira gutxi hurbiltzen baziren ere orain sarrago jaisten direnak. •